

Hernaniko Udala
Iragarkia

Hernaniko Udaltzaren, 2025eko abenduaren 2an egindako osoko bilkura berezian, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

HERRITARREN ELKARBIZITZA ETA BIDE PUBLIKOKO ERABILERA ETA GARBIKETA ARAUTZEN DUEN UDAL-ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Hernaniko udalerrian txotx garaian ematen den jendearen etorrera kudeatu ahal izateko, beharrezkotzat jo da bi aldaketa partzial egitea bi ordenantzetan.

Kontuan hartu da Antolaketa eta Ogasun Batzordeak 2025eko azaroak 27ko bilkuran boz batez emandako irizpena.

Horiek horrela, **aho batez erabaki da:**

Lehenengoa. Herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen udal ordenantzaren 36. artikulua aldaketari hasierako onarpena ematea eta 1. zenbakian laugarren paragrafo bat gehitzea, honako hau jasoko duela:

«Isuna kalean pixa egiteagatik bada, % 50eko murrizketa aplikatuko da».

Ondorioz, testua horrela geratuko da aldaketarekin:

«36. artikulua.

1.- Ordenantzaren 34.1 artikuluan jasotzen diren isunak behean adierazten iren murrizketak aplikatuz ordaindu ahal izango dira, baina isunei murrizketak aplikatu ahal izateko beharrezkoa izango da zigor espedientea ireki dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hurrengo hiru egunetan ordaintzea:

- % 50eko murrizketa 100 eurotik beherako isunentzat.

- % 70eko murrizketa 100eurotik gorako isunentzat.

Goian esandako murrizketez baliatuz egindako ordainketa arinek dakarte alegazioak egiteari uko egitea eta prozedurari ebazpen espresurik egin beharrik gabe amaiera ematea, nahiz eta dagozkion errekursoak jarri ahal izango diren.

Isuna kalean pixa egiteagatik bada, % 50eko murrizketa aplikatuko da».

Bigarrena. Herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen udal-ordenantzaren 36. artikulua aldaketaren hasierako onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.b) artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 50.1 eta 62. artikuluetan ezarritakoaren arabera, espedientea jendaurrean jartzen da eta interesatuei entzunaldia ematen zaie hogeita hamar egun baliadun, egoki irizitako alegazio, erreklamazio, eta iradokizunak aurkeztu ahal izan daitezkeen.

Alegaziorik, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko onarpena behin betiko bilakatuko da, eta ordenantzaren testua oso-osorik argitaratuiko da aldizkari honetan eta Hernaniko Udalaren egoitza elektronikoa.

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-idazkaria
Hernani, 2026ko otsailaren 16a

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago:
egiazotasuna eta osotasuna
egiazta dezakezu azpiko QR kodea edo egoitza
elektronikoaren bitartez

Esta notificación está firmada electrónicamente: puede
comprobar la autenticidad e integridad a través del
código QR subyacente o de la sede electrónica.